


eInika-REN ERAPILPENA GURASOENTZAT

eInikan sartu ahal izateko erabiltzaile izena eta pasahitza idatzi behar dira. Datu hauek institutuak postaz bidaltzen dizkie guraso guztiei. Komeni da datu hauek ongi gordetzea. Datu horiek iritsi ez bazaizkizu edo ahaztu eta galdu badituzu telefonoz edo e-postaz (013085aa@hezkuntza.net) eska ditzakezu.

Sarbide edo login-eko pantaila igaro eta gero, gurasoak ikus dezakeen pantailaren itxura bi motatakoa izan daiteke, a) eta b) hurrenez-hurren.





a)

b)

- a) kasuan, gurasoak ez du mezurik.
- b) kasuan, gurasoak hiru mezu ditu. Hiru horietatik lehena irakurrita dago (sobretxoa irekita) eta beste biak irakurri gabe (sobretxoa itxita).


Mezua ikaslearen irakasleak edo tutoreak bidalitakoa izan daiteke. Mezu bakoitza nork bidalitakoa den zehazten da JATORRIA atalean.

Gurasoak mezua irakurri duela jakinarazteko ADOS laukia markatu eta gorde  botoia sakatu behar du, eta mezua ezkutatzeke berriz EZK laukia markatu eta gorde  botoia sakatu. Bi eragiketa hauek pauso banatan zein aldi berean egin daitezke (mezua irakurri eta aldi berean ezkutu nahi badugu).


Mezu batek fitxategi bat atxikita eduki dezake, baina ez gehiago. Fitxategia irekitzeko nahikoa da klik bat egitea fitxategiaren gainean.

ESPEDIENTEA

Seme edo alabaren espedientea ikusteko aukera ematen du.
Aukeratu zein seme edo alabaren espedientea ikusi nahi duzun.




Behin aukeratuta era honetako itxura duen pantaila agertuko da, non ikaslearen maila kurtsoa, taldea, tutorea eta dituen gaiei buruzko informazioa (irakasleak, materia pendienteak) agertuko den.




NOTAK

Atal honek seme-alaben notak ikusteko aukera ematen du.

Aukeratu zein seme edo alabaren notak ikusi nahi dituzun eta zein ebaluaketakoak, ondoren sakatu gezi itxura duen botoiari.




Aukeraketaren ostean noten berri ematen digun pantaila agertuko da:




HUTSEGITEAK

Atal honek seme-alaben hutsegiteak eta antzeko gorabeherak ikusteko aukera ematen du.

Aukeratu zein seme edo alabaren hutsegiteak ikusi nahi dituzun eta zein ebaluaketakoak, ondoren sakatu gezi itxura duen botoiari.




Aukeraketaren ostean hutsegiteen berri ematen digun pantaila agertuko da:




Kontuan izan web-orriaren bidez seme-alaben hutsegiteak ezin direla justifikatu, eta, bestetik, irakasleak hutsegitearen parte eman arte eta, hala badagokio, tutoreak hutsegite hori justifikatu arte zenbait egun pasa daitezkeela

TUTORE HARREMANA

Atal honek seme-alaben tutoreekin harremanetan jartzeko aukera ematen du.



Horretarako aukeratu seme edo alaba eta automatikoki tutoreari dagokion testu koadroa bete egingo da.



Ondoren tutoreari idatzi nahi zaion mezua idatziko da mezua-koadroan eta bidaltzeko sobreaki sakatuko zaio. Tutoreak mezua irakurri ote duen jakiteko mezuen jarraipena egin dezakegu. Kontuan izan egunak pasa daitezkeela mezua irakurri arte.

Beste erabilpen batzuk:

